

ANNEXOS

I

Funcions i expressions comunicatives

“EL TRACTAMENT DE LES LLENGÜES EN UN MODEL D'EDUCACIÓ PLURILINGÜE PER AL SISTEMA EDUCATIU VALENCIÀ” DOKUMENTUTIK HARTUA

<http://www.ceice.gva.es/va/web/enseanzas-en-lenguas/el-tratamiento-de-las-lenguas-en-un-modelo-de-educacion-plurilingue-para-el-sistema-educativo-valenciano>

Funtzio eta adierazpen komunikatiboak

A Funtzio pertsonala

Funtzio pertsonalak aukera ematen dio ikasleari bere nortasuna adierazteko eta ideia, sentimendu eta sentsazio subjektiboak adierazteko. Hauek dira funtzio pertsonalari buruzko komunikazio-egintza nagusiak:

1 Izena galdetu eta esan.	<i>Nola duzu izena?</i> <i>Nola deitzen zara?</i> <i>Ni ____ naiz</i> <i>Nire izena ____ da</i> ...
2 Jaiotza data galdetu eta esan.	<i>Noiz jaio zinen?</i> <i>Otsailaren 10ean jaio nintzen.</i> <i>Zein da zure jaiotza data?</i>
3 Adina galdetu eta esan .	<i>Zenbat urte dituzu?</i> <i>10 urte ditut.</i> <i>10 urte egin ditut.</i> ...
4 Sentsazioak adierazi.	<i>Bonbilla itzali da da eta ez dut ikusten.</i> <i>Ez dut ezer sentitzen.</i> <i>Pastel honek txokolate gustua du.</i> <i>Usain ona/txarra dago.</i> <i>Usain txarra du.</i> <i>Arrain honek usain txarra du.</i> <i>Suziriaren zaratak gor utzi nau.</i> <i>Ozenago hitz egin ezazu, ez zaitut sentitzen.</i> <i>Gela hartan zarata handia ateratzen dute...</i>

<p>5 Norbere egoera fisikoa adierazi.</p>	<p><i>Zotina daukat.</i> <i>Ez nago ondo.</i> <i>Gaizki nago.</i> <i>Janaria kalte egin dit.</i> <i>Hoztuta nago.</i> <i>Ondo jarri (sendatu) naiz astebetean.</i> <i>Besoan ubeldu bat daukat, burko mina.</i> <i>Ukondoan urratua egin dut.</i> <i>Zauriak min ematen dit.</i> <i>Mukia erortzen zait.</i> <i>Gaixorik nago.</i> <i>Sabeleko mina daukat, belarriko mina.</i> <i>Haginetako mina dut.</i> <i>Ai, ze mina ematen didan!</i> <i>Sukar pixka bat daukat.</i> <i>Gose naiz.</i> <i>Egarri naiz.</i> <i>Logura dut.</i> <i>Lo hartu dut.</i> <i>Lotan dago.</i></p>
---	---

6 Estimua adierazi.	<i>Asko maite zaitut. Asko estimatzen dut! Oso lagunak gara.</i>
7 Poza adierazi.	<i>Ederki! Zein ondo! Zera... Hau poza! Hau ilusioa! Pozik nago. Hain pozik nago... Pozten naiz! Hau zortea! Eskerrak ez duen</i>
8 Asperdura adierazi.	<i>Ze aspergarria! Hau asperdura! A ze lata! Isilduko ahal da!</i>
9 Pena adierazi.	<i>Asko sentitzen du. Pena ematen dit Pena da..... Hau da pena daukadana! Penagarria da... Hau zorte txarra! Bai zorte txarra!</i>
10 Arbuioa, biguina adierazi.	<i>Zer nazka! Hau nazka! Nazka ematen dit honek... Zakur nazkagarria!...</i>
11 Amorrua, haserrea adierazi	<i>Txoroa (tontoa...) zara! Aski da! Nahikoa da! Hau amorrua! Haserretu naiz! Nazkatuta nago! Oraintxe nazkatu nauzu! Nazka-nazka eginda nago.....</i>

12 Axolagabekeria adierazi.	<i>Berdin zait, berdin dit Egin ezazu nahi duzuna Nahi duzun bezala.</i>
13 Harridura adieraztea.	<i>Benetan? Bai zera! Ezin da izan! Zer diozu? Ez nuen espero!. Ezin zitekeen... Pentsaezina!. Eta orain!...</i>
14 Norberaren gustuak adierazi.	<i>Asko gustatzen zait... Hura gehiago gustatzen zait. Gehiago gustatzen zait... ... baino Izugarri gustatzen zait (liluratu egiten nau)... Uste dut... Bai txarra! Ze dibertigarria! Ez zait batere gustatzen. Zoragarria da! Bai polita!</i>
15 Usteak eta iritziak adierazi...	<i>Nire ustez... Nire iritziz... Nik uste dut... Uste dut... Iruditzen zait...</i>

<p>16 Onarpena/gaitzespena adierazi.</p>	<p><i>Argi dago baietz.</i> <i>Ados.</i> <i>Noski</i> <i>Arrazoi duzu.</i> <i>Bai horixe!</i> <i>Ezin da izan!</i> <i>Ez nago ados!</i> <i>Hau ez da horrela!</i> <i>Hori bai ezetz!</i> <i>Gaizki egin duzu.</i> <i>Zure laguna oso gogoko dut/ez</i> <i>dut gogoko</i> <i>Nire gelako umeak oso gaizki portatzen</i> <i>dira.</i></p>
<p>17 Beldurra adierazi.</p>	<p><i>Beldur naiz.</i> <i>Beldurtuta nago...</i> <i>Mamuek beldurra ematen didate.</i> <i>Oso beldurtuta nago.</i> <i>A ze sustoa eman didazun!.</i></p>

18 Adierazi egokitasuna.	<i>Zapatak ez zaizkit ondo geratzen. Trajea estua daukat....</i>
--------------------------	--

B Pertsonen arteko funtzioa

Ikasleari hizkuntza komunikazio-trukeak kudeatzeko eta beste pertsona batzuekin elkarrekintza-harremana ezartzeko erabiltzeko aukera ematen dio. Hauek dira erlazioan dauden komunikazio-egintzak:

1 Aurrez aurre interpelatu	<i>Andereño! Entzun... Barkatu... ...</i>
2 Interpelazio bati aurrez aurre erantzutea.	<i>Bai? Nola? Zer nahi duzu? Zer gertatzen da?</i>
3 Pertsona betengatik galdetu.	<i>Etxean dago Mikel? Hitz egin nahi nuke... Hitz egin dezaket.....</i>
4 Telefonoz hitz egin	<i>Esan! Bai? Norekin ari naiz? Norekin hitz egin nahi duzu? Noren partetik? Unetxo bat, oraintxe jarriko da. Itxaron, orain pasako dizut. Hemen ez dago X. Une honetan ez da bulegoan.. ...</i>
5 Agurtu.	<i>Egun on, gau on, arratsalde on. Zer Moduz? Zer moduz doa? Kaixo. Oso ondo! Gaizki! Ez oso ondo.</i>

6 Agur esan	<i>Agur! Ondo pasa! Bihar arte! Ongi!</i>
7 Zoriondu.	<i>Eguberri on. Zorionak. Ongi, segi horrela.</i>
8 Eskerrak eman	<i>Eskerrik asko Mila esker Ez horregatik ...</i>
9 Gonbidatu/ gonbidapen bati uko egin	<i>Etorri nahi duzue...? Nire festara gonbidatzen zaituztet... Zergatik ez zatoz nire etxera gaur arratsaldean? Eskerrik asko, baina... Ezin naiz joan. Gustatuko litzaidake, baina ezin dut.</i>
10 Arrazoiak eskatu eta aitzakiak jarri	<i>Sentitzen dut. Benetan pena ematen dit. Nahi gabe egin dut....</i>
11 Kontuak eskatu	<i>Nolaz ez didazu itxaron? Zergatik esan duzu? ...</i>

B Erregulazio funtzioa

Ikasleari aukera ematen dio hizkuntza beste pertsona batekin aritzeko eta zerbait lortzeko.

1 Jarraibideak eta aholkuak eskatu	<i>Non utziko dut hau? Nola funtzionatzen du honek? Bihar eraman behar da dirua? Zer egingo dut? Zer esango diot? Zer liburu hartuko dut?</i>
2 Jarraibideak eta aholkuak eman.	<i>Lehenik eta behin, orria moztu behar duzu, eta, ondoren, margotu. Ni ez nintzateke aterkirik gabe aterako.</i>

	<i>Boligrafoz idatzi beharko zenukete. Zergatik ez duzu jertsea janzten?.</i>
3 Baimena eskatu	<i>Sar naiteke? Komunera joan naiteke? Utziko zenidake telefonoa erabiltzen? Bihar beranduago hel naiteke?</i>
4 Aginduak eman.	<i>Moztu marrazkia. Itxi atea, mesedez. Lan gehiago egin beharko zenuke. Arreta gehiago jarri behar duzu. Gehiago ezabatu behar da. Zakarrontzia eramango didazu, mesedez? Zergatik ez duzue amaitzen? Patiora irten zaitezke. Ez al duzue lotara joateko asmorik?</i>
5 Ohartarazi, abisatu.	<i>Zaindu esnea! Kontuz! Kontuz kotxeekin! ...</i>
6 Zerbait egitea debekatu.	<i>Ez oihurik egin, mesedez! Ez okurritu etxetik ateratzea nora zoazen niri esan gabe</i>

C Erreferentziako funtzioa

Erreferentzia-funtzioa hizkuntza errealitatea deskribatzeko edo azaltzeko erabiltzen denean agertzen da.

<p>1 Ordua eskatu eta eman</p>	<p><i>Zer ordu da?</i></p> <p><i>Hirurak dira.</i></p> <p><i>Ordu bata eta erdiak dira.</i></p> <p><i>Laurak eta bost dira.</i></p> <p><i>Hamar minutu falta dira zortzietarako.</i></p> <p><i>Bostak eta hamar dira.</i></p> <p>...</p>
<p>2. Data eskatu eta eman</p>	<p><i>Zer egun da gaur?</i></p> <p><i>Gaur asteazkena da.</i></p> <p>...</p>
<p>3 Kokapena galdetu eta esan.</p>	<p><i>Non dira musuzapiak?</i></p> <p><i>Zapiak tiraderan daude.</i></p> <p><i>Non da Jon?</i></p> <p><i>Nekane patioan dago Lagunekin.</i></p> <p><i>Non da farmazia?</i></p> <p><i>Farmazia kalearen erdialdean dago.</i></p> <p><i>Basoko etxola bi ordutara zegoen</i></p> <p>....</p>
<p>4 Eguraldiatik galdetu eta esan</p>	<p><i>Zer eguraldi?</i></p> <p><i>Eguraldi ona/txarra egiten du.</i></p> <p><i>Hotza/haizea egiten du.</i></p> <p><i>Euria ari du.</i></p> <p><i>Lainotu du.</i></p> <p><i>Zaparrada bat erori da.</i></p> <p><i>Tximista eta trumoia.</i></p> <p><i>Eguzkia ikusten da hodeien artean.</i></p> <p><i>Tximistak erortzen dira.</i></p> <p><i>Ortzadarra agertu da.</i></p> <p>...</p>
<p>5 Pertsona edo gauzaren batengatik galdetu</p>	<p><i>Zer da hau?</i></p> <p><i>Hau errotuladore bat da.</i></p> <p><i>Nor da gizon lodi hura?</i></p> <p><i>Gizon lodi hura butano-banatzaila da....</i></p>

6 Prezioaz galdetu	<i>Zenbat balio du Hogei euro balio du ...</i>
7 Gertaera bat kontatu	<i>Atzo lehoi bat ikusi nuen zooan....</i>
8 Objektu bat, animalia bat edo pertsona bat nolakoa den esan.	<i>Nire boligrafoa urdina eta bi kolorekoa da. Nire lehengusuaren txakurrak ile luzea du eta korri asko egiten du. Maria neska garaia eta argala da. Metro bat eta hirurogei neurtzen du ...</i>
9 Konparatu.	<i>Mirenek nik adina galdetzen du. Esaten duena baino gutxiago ikasten du. Nire alkandora baino modernoagoa darama. Berak zuk baino gehiago egiten du. Jonek lehengusinarekin antza du. Miren eta Jonek ez dute antzik....</i>

D Funtzio poetiko-irudimentsua

Funtzio poetiko-irudimentsua ikasleak komunikazio-asmoa mezuaren ahozko edo idatzizko formaren gainean fokalizatzen duenean edo hizkuntza balizko edo irudizko munduak eraikitze edo deskribatzeko erabiltzen duenean gauzatzen da.

1 Erritmo edo/eta errima bereziak dituzten adierazpenak	<i>Zozoak beleari ipurbeltz</i> <i>A ze pareta, karakola eta barea!</i> <i>Bost xentimoko pupua, eta bost euroko trapua</i> <i>Hor konpon, Marianton!</i> <i>Zeurea egin artean mantso eta mantso;</i> <i>zeurea eginez gero zantzo eta zantzo</i>
2 Metafora edo beste irudi alegoriko batzuk dituzten adierazpenak.	<i>Haritza bezain handia da.</i> <i>Lehoi baten antza du, ez dio ezeri beldurrik.</i> <i>eguzkitan bero-bero</i> <i>izerditan egunero.</i> <i>uf, uf hondartzara</i> <i>noa gero!</i> <i>uf, uf, hondartzara noa gero!</i>
3 Irudikatutako munduak deskribatu.	<i>Bazen behin aizkolari bat...</i> <i>Aspaldiko garaietan oso urrutiko planeta batean...</i>

E Funtzio metalinguistikoa

Funtzioa metalinguistikoa erabiliko du ikasleak hizkuntzari bauruzko zalantzak argitzeko edo komunikazio arazoak konpontzeko

1 Hizkuntzari buruzko hausnarketa.	<i>Letra hau nire izenekoa da.</i> <i>Hitz hau letra larriz idazten da.</i> <i>Bi hitz horiek esanahi bera dute.</i> <i>Idatzi esaldi oso bat.</i> <i>Testu honen esanahia laburbiltzen du.</i> <i>Esan zer den paragrafo honen ideia</i>
------------------------------------	--

	<i>nagusia....</i>
2 Komunikazio arazoak konpondu.	<i>Zer esan nahi duzu...? Nola diozu...? Zer esan nahi izan duzu horrekin? Ez baduzu hobeto ahoskatzen, ez dizut ulertzen. Letra argiagoz idatzi behar duzu....</i>

Eskolako hizkuntza

(...) hizketan ari da.
(...) kale egin du, huts egin du
(...) hitz zatar bat esan du.
(...) kiker egin du.
(...) papera lurrera bota du
Eseri zure lekuan.
Ados.
Kolpe bat hartu du.
Garbitu eskuak.
Koloretako arkatza utziko didazu?
Ura botako didazu?
Borobilean jarri...
Jo egin nahi gaituzte.
Eskola ordua da.
Jolasgarai ordua da.
Ezabatu arbela.
Zorroztu arkatza.
Pasa orria.
Garaiz iritsi da.
Ni hirugarren izan naiz.
Ni ez naiz izan.
Nik ogitarteko bat daramat...
Pilotan jolastera goaz.
Garbitu eskuak.
Kendu/erantzi txamarra.
Bultzada bat eman dit.
Gaizki atera zait.
Kristal bat sartu zait.
Min hartu dut.
Inoiz ez ditu klaseko lanak amaitzen.
Ez dut ulertzen.
Ez dut gehiago egingo.
Ez dakit egiten.
Zalantza bat dut.
Ez dakit ariketa bat egiten.
Ez du nirekin jolastu nahi.
Non utziko dut hau, andereño?
Eskegi berokia esekitokian.
Jantzi jaka.
Adi egon.
Har dezaket pilota?
Pixa egitera joan naiteke?
Komunera joan naiteke?
Ura edan dezaket?
Ez dituzu etxeko lanak egin?
Azpimarratu hau.
Bildu liburuak.
Borrokan ari dira.
Andereño, (...) jo egin nau!
Bota zakarrontzira.
Orkatila bihurritu.

Zu ez zara hasi, baina jotzen bazaituzte itzuli? -.
Zu ez sartu.
Bizikletaz doa.
Laugarren mailan ari naiz.
Eskuak garbitzera noa.
Kontuz ibili.
Oso gaizki portatu zarete.

